# BAYONETA

## Tolosaco Napoleonen aurcaco aldizcaria, ó Periódico antinapoleónico de Tolosa

*Tolosan inprimatua bere legezco Udal eta Archiboaren babesean,*
*Eusco Icascuntzaren pribilejioarequin,*
*Reding mercatalecheac, Artem moldizteguian.*



*Impreso en Tolosa bajo la protección de su legítimo Ayuntamiento y Archivo,*
*con privilegio de la Sociedad de Estudios Vascos,*
*por la casa de comercio de Reding, en la imprenta de Artem.*

**Tolosan, 1813co epaillaren 21ean. Londresco Estafeta, Donostitic iritsia.**

Tolosarrac, Tiranoaren Equersitu Andiac orain iru ilabete escas Czarraren lurretan mereci zuen acabera izan duenaren berriya izango zenuten. Ala, Londresco Estafeta bidez Donostiyatic iritsitaco nire berriec ez dizue ezer berriric eracutsico, baña oraindic Basatia, Europaco Tiranoa, mendean ar daitequeela zalancatan jarcen dutenei, alaxe izan dela esango dizuet, eta Buonaparteren defendacaile suchuenac ere, guezurra esan ezean, ezin izango du contracoric esan.

Bere estandarteac bere escuz izan ziren suntsituac eta bere soldaduac birringatuac Poloniaraco guero eta iesaldi desesperagarriagoan. Auetaco asco Beresina ibaiaren ercean bere zortera uciac izan omen ziren, Ascatasunaren ilcaile eta bidelapur orda aundi orren condar negargarri ori pasa zeneco zubiac eztandarazteco aguindua eman zelaric, contraco ibai ercean auetaco gueiago egon zitezqueela contuan izan gabe, auetaco asco erabaqui laca artu bearrean suertatu zirelaric, aleguia, Czarraren tropen escu ilcea edo, bestela, izoztea saiatuz iguerian ur aiec zearcacen negu gorri onetaco sasoiric crudelenean. Orain icusten duzue, ba, nola guiltzapetu ez duten, ezta inoiz guiltzapetzea lortuco ez duten Bayoneta onec beti gogorarazi dizuena betecera datorrela, ziurtatuz, artara, Europaco Tiranoaren, Buonaparte Basatiaren, despotismo eta indarqueriac bear bezalaco zigorra izanaz bucatuco zuela.

**Tolosaco berriac. Bertan icusiyac.**

Basatia erioaz colpatua egon arren, alere badaquizue, Tolosarrac, bere azquen atsa eman arte, ez duela etsico, bere ausarqueria eta neurriric gabeco arroqueria medio. Onenbestez, urrengo udaberri onetan Czarra eta bere aliatuen contra eguiteco Equersitu Andi berria prestacen ausarcen ari deneco zurrumurrua ere badabil. Zeuoc egunero badaucazue frogacea gueure errian bere esbirroec oraindic ere nai eta desiracen dutena eguiten dutela.

Gueure erri a izurritu zutenetic, urtero guertatu den bezala, ilbelzaren 1eco onetan chochonguillo ancerqui biurtu duten udalbaca orren alcate eta gaineraco capitularren zereguina betececo nai izan dutena auqueratu dute. Naiz eta garbi egon, guero eta guchiago direla bere musica zatarraren doinupean danca eguiten dutenac. Ori dela eta, ilbelzaren 3co egun onetan, Ygnacio de Gorostegui gueure auzoac, bere andre Margarita de Goycoechearen esquz memorial bat idaci zuen, arrazoituz apenas icus dezaqueela eta beraz, ez luqueela bere lana ongi beteco, bere semearengan uciz, artara. Bearbada bere icusmena berac arrazoicen duena baino zorrocagoa da, equersitu aliatuen bayoneten dizdira bereizteco gai izanic. Ceinac *mylord* Wellingtonen aguindupean egunetic egunera guero eta urbillago dauden jaca urdindun bidelapur auec gueure erritic canporaceco.

Gainerancean, bearbada, Buonaparte Basatiaren bein betico acabera icusico den urte asieraco ilabete auetan, Europaco Tiranoaren diszipulu azcarrec gueure Azienda osten eta xaucen seguitu dute eta gueure Udalbaca bidelapurreria orren aurrean isildu eguin da edota berau burucen lagundu du.

Ain zuzen ere, ilbelzaren 2an bertan Ayaco Conzejuari gueure borreruac babesteco amabi manta esaceco atrebentziya izan zuten, aitortu arren, ecela an baliozco ezer, orain manta esque dabilzan oriec beraiec erria crudelqui arpillatu ostean.

Otsailaren 12, 13, 14 eta 15ean gueure capitularrec zeuen icusmenac, Tolosarrac, egun orietan gueure caleetan zear Duvernet delaco general baten aguindupean jasan bear izan zuen Goardia Inperialeco ardo errazioac ordaindu zituzten. Ilabete orretaco 18an Urangabarrena echaldea saldu zen, orain dela urtebete Dorsenne conte jaunac ain zintzoqui ezarri zigun isuna pagacen seguiceco. Clauzel generala eta bere bandac 19an bisita eguin ziguten, eta ardo errazio gueiago pagatu bear izan cicaien.

Epailleco ilabetean egoera gorrotagarri au ez zen asco obetu. Ilabete orretaco 19an Buonaparte Basatiaren anaiaren santu eguna ospaceco arguiac jarcera beartu ziguten. Gotorlecuen egurra ordaindu bear izan zen 29an, ceinequin, alferric, berandu baino leen ainbeste Bidegabequeria eta Zapalquetatic libratuco gaituzten equersitu aliatuac geldiarazten saiatuco diren.



*Napoleonen diszipuluac - Los discípulos de Napoleón*

**En Tolosa a 21 de marzo de 1813. Estafeta de Londres, por vía de San Sebastián.**

Habrán llegado hasta vosotros, Tolosarras, noticias del modo en el que el Gran Ejército del Tirano ha encontrado su merecido destino, en las tierras del Czar, hace apenas tres meses. Así nada nuevo os descubrirán mis noticias, llegadas desde San Sebastián por la estafeta de Londres, pero para aquellos que aún dudan de que pueda vencerse al Ogro, al Tirano de la Europa, os diré que así ha sido, y que ni el más acérrimo defensor de Buonaparte podrá decir lo contrario sin mentir.

Sus estandartes fueron destruidos por su propia mano y sus soldados diezmados en la cada vez más desesperada huida hacia la Polonia. Se dice que muchos de ellos fueron abandonados a su suerte a la orilla del río Beresina, dándose la orden de volar los puentes por los que habían cruzado los restos lamentables de esa gran horda de bandoleros y asesinos de la Libertad sin cuidarse de que hubiese más de ellos en la orilla opuesta, quedando muchos abocados a la terrible decisión de morir a manos de las tropas del Czar, o helados intentando cruzar a nado aquellas aguas en lo más crudo de este crudo invierno. Veis así ahora cómo vienen a cumplirse las palabras que esta Bayoneta que no han encerrado ni conseguirán encerrar jamás siempre os ha recordado, asegurando que el Tirano de la Europa, el Ogro Bonaparte acabaría encontrando el merecido castigo a su violencia y despotismo.

**Noticias de Tolosa. Observadas del natural.**

Pese a que el Ogro está mortalmente herido, sin embargo, sabéis, Tolosarras, que su osadía y desmedido orgullo le impedirán todavía darse por vencido hasta que no haya consumido su último aliento. Se rumorea así que incluso se está atreviendo a preparar un nuevo Gran Ejército para marchar contra el Czar y sus aliados esta próxima primavera. En nuestra villa vosotros mismos podéis comprobar, casi cada día, que sus esbirros aún hacen cuanto quieren y desean.

Como ha ocurrido cada año desde que infestaron nuestra villa, han elegido este mismo 1 de enero a quién les ha placido para hacer el papel de alcalde y demás capitulares de ese Ayuntamiento que ellos han convertido en su teatro de títeres. Aunque es claro que son ya cada vez menos los que bailan al son de su estridente música. Así, nuestro vecino Ygnacio de Gorostegui este día 3 de enero, por mano de su mujer Margarita de Goycoechea, escribió un memorial alegando que apenas puede ver y por tanto no serviría bien en ese puesto, resignándolo en su hijo. Quizás su vista sea más aguda de lo que alega, siendo capaz de distinguir ya el brillo de las bayonetas de los ejércitos aliados que, bajo mando de *mylord* Wellington, están cada día más cerca de expulsar de nuestra villa a estos bandoleros de casaca azul.

Por lo demás todo ha transcurrido en estos primeros meses del año que, quizás, vea la derrota definitiva del Ogro Buonaparte, como de costumbre. Esto es: los discípulos aventajados del Tirano de la Europa han seguido robando y esquilmando nuestra Hacienda y nuestro Ayuntamiento ha callado ante ese bandidaje o ha ayudado a que se ejerciera.

Así el mismo 2 de enero tuvieron el atrevimiento de exigir al concejo de Aya doce mantas para arropar a nuestros verdugos, aún reconociendo que nada había allí de valor después de que la población fuese horrorosamente saqueada por los mismos que ahora, además, exigen esas mantas.

Los días 12, 13, 14 y 15 de febrero nuestros capitulares pagaron las raciones de vino de la Guardia Imperial que vuestra vista, Tolosarras, tuvo que padecer esos días en nuestras calles bajo el mando de un tal general Duvernet. El 18 de ese mes se vendió la casería de Urangabarrena para seguir pagando la multa que tan paternalmente nos impuso el señor conde de Dorsenne hace un año. El 19 hubo que pagar más raciones de vino al general Clauzel y su banda, que también nos visitaron.

El mes de marzo no mejoró mucho tan odioso panorama. El 19 de ese mes nos obligaron a poner luminarias para festejar el santo del hermano del Ogro Bonaparte. El 29 se tuvo que pagar la madera de las fortificaciones con las que, en vano, tratarán de detener a los ejércitos aliados que, más temprano que tarde, nos librarán de tanta Injusticia y Opresión.